

## Hiru urte galdu

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-07-13: 3.

Bertsolaritza da, hizkuntzarekin, herri honek duen berezitasun bitxienetako bat. Ez da gizarteko fenomeno bakar, soil, izango, antzinako beste herri batzuek gorde omen dute, guk bezala, antzeko den bertsogintza; baina antza ez da dantza, eta, gainera, gurea izatea nahiko behar luke geure bezala tratatzeko eta ez arrotzarenaren betegarri bezala; hau berak zainduko du eta! Bada, bagenuen gure telebistan *Hitzetik Hortzera* izena zuen saio eder bat, eta ez dakit zergatik galtzen utzi genuen. Falta zitzaigun harrez gero, haren nostalgiaz bizi ginen. Eta orain, hiru urte gero, irakurri dut joan den asteazkenean justu, berpiztuko ote dutelako berria. Sasoi honetan hain urri zabaldu ohi diren berri onetako bat! Ez du egingo *Goenkale*-ko arrakastarik, baina segur naiz izango duela ikus-entzulego ederra eta fidela, eta bestalde izango litzateke euskal kulturako bidean falta zaigun zerbait eta bertsogintzaren beraren pizgarri modernoa ere. Pena izango baita euskarari gizartean geratzen ari zaion denbora eskasa, eta ETBrena, biak, hain garesti izanik, beste zerbaitetan galtzea. Eta ez minututan kontatua, urte luzetan baizik.